

JAGON SAILA XIII. Jardunaldiak

EUSKARA, KONTSUMOA ETA HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

EUSKARAZ MINTZATZEN DA

Hizkuntza paisaia

Iruñeko Udaletxeko Plazako denda batean txartel txukuna, metalezkoa, urteetan han egon zen, erakuslehoan, maindire, mahai-zapi eta beste hainbat oihalen artean, nabarmen. **Euskaraz mintzatzen da** idatzirik txartelean. Etxean bezala sentiarazten gintuen handik pasatzean, ez oihalek txartelak baizik, etxean sentiarazten euskaraz ari zen jendea bazela jakiteak. Iruñean ere euskaraz mintzatzen da! Hogeita hamar urte baino gehiagoz txartela agerian izan duen denda horretara hainbat emakume, gizon bakar batzuk ere bai, etortzen zen euskaraz bizi ziren herrietatik, eta bertan beti bazen bezeroarekin euskaraz ariko zen gizonezko saltzaileren bat, Etxarri Aranazko Juanito Ezkutari urteetan.

Bezeroei ahalik eta zerbitzu hoberena eskaintzea zuten helburu, errazago baitzen euskaldunei euskaraz saltzea. Denda horretako nagusiak, Aita Donostiaren laguna zen Joaquín Zigak bakarrik, ez beste batzuekin batean eta bere kabuz, inoren laguntzarik gabe, hartu zuen erabaki hori. Garai hartan, 40ko hamarkadan, ez zen gainera euskararen aldeko jarrera nagusi. Euskara irakaskuntzara aldarria bera ere 60koa izan zen, oraindik euskara karrikara, zerbitzuetara ez genuen oihu egiten.

Hamarkada batzuk geroago, denda honetatik hurbil beste batek izena euskaraz jarri nahi izan zion bere lantokiari. *Oñatekogia* izenarekin asmatu ez badu ere, oinetako konpontzailea da, euskaraz hitz egiten zuen eta bere ahalegina eskertzekoa da. Norbanakoen borondate onez eginak dira horrelakoak, hanka sartzeak barne. Ez dago hizkuntza paisaia euskalduntzea xede duen elkarterik; ez dago babesik, neurririk, eta jendeak ez daki nora jo laguntza eske. Ziga bera baino lehenagokoa, nik ezagutu ez nuena, aitari entzuna, XX. mende hasieran Iruñeko Xabier Aldapakoa. Gizonak bizarra egitera erakarriz *Bizartegi* jartzen omen zuen komertzioa.

Iragarkiak

Arestian esan bezala, 60ko hamarkadan hasi zen euskararen aldeko mugimenduak irakaskuntza lehenetsi zuen, merkataritzaren mundua aintzat hartu gabe. Iragarkiei dagokionez, esate baterako, ez zen askorik euskaraz, eta ez da harritzekoa. Euskara irakurle gutxi, eta hedabide gutxiago izateaz gainera, publizitatearen munduak ere indar handirik ez baitzuen.

Principe de Viana aldizkarian, 1966tik 1983ra bitartean, iragarkiak baino jakinarazpenak ageri direla esanen nuke. Nafarroako Diputazioak antolatu zituen *bertsolari-besta*, *nafar izkuntzaren eguna*, *udako euskal irakasleen ikastaroa*, eta abarren berri ematen du. *Napar Pilota Elkarateak*, *Naparroa'ko Aurrezki Kutxaren laguntzaz eratutako "Igo napar pilota aur-txapelketa"* –izenak aldizkarian agertzen diren moduan idatziak- iragartzen du 1975eko otsaileko alean. *Etoriki* dantza eta kantu batasunaren deia hiru soinulari behar dituela eta.

Tolosan, 1974an, eginen den *abestaldeendako euskal abestiaren VI. leiaketa*, edo 1975eko urtarrilean Tolosan Txinparta elkarteak egin behar dituen hitzaldiak iragartzen dizkigu. *Gipuzkoako Camara Oficial Agrariak* ematen zuen *San Isidro Saria* iragartzen du aldizkariak, baita *Lankide Aurrezkiaren* literatur lehiaketa, *Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialarena*, eta *Bilbo Aurrezki Kutxarena* ere. Euskaltzaindiaren batzarren berri ere ematen du, eta 1974ko martxoko alean idazten du, Euskaltzaindiak, otsailaren 23an, *Merkatalgo Izendegia* aurkeztu zuela Iruñean. Aldizkari honetako bitxikeria pare bat aipatu nahi nituzke. Bata, nafar bikote baten eztei-gonbidapen txartela euskaraz argitaratzen duena, jarraibide ederra dela aipatuta. Eta bestea, berriz, testamentua euskaraz nola egin ikasteko ereduak ematen dituen: “*notarioaren aurreko azkenaia*” eta “*erretorearen aintzineko azkenai-eredua*”. Gogoan izan behar dugu nafarrek, legez, testamentua euskaraz egiteko aukera bazutela. Errealitatea, ordea, bestelakoa zen; Campionen hitzetan: *Un hombre, o una mujer, que no sabe, o no sabe casi el castellano, enferma gravemente. Entonces tres cosas le convienen sobremanera; explicar su dolencia al médico y enterarse de sus prescripciones, hacer una buena confesión y otorgar testamento. Pero es que ni el médico, ni el cura, ni el notario saben baskuenze.[...] el mansísimo varón, u hembra, vuelve la cara hacia la pared y se muere como un idiota, después de ejecutar mal las tres cosas que le importaba ejecutar bien.*¹

Zeruko Argian ere 70eko hamarkadan ez dago iragarki askorik, hala ere hauek salerosketako iragarkiak dira. Batez ere Gipuzkoakoak dira, baina Nafarroakoak ere badira poliki, Iruñeko Aurrezki Kutxak ale gehienetan badu iragarkirik, zenbaitetan bi ere bai. Mina lantegiarenak gutxiagotan ageri dira baina orri osokoak eta estalkian koloretan. Celetum eraikuntzarako materialak saltzen dituen etxeak ere zenbait aletan egin du publizitatea. Eta Esarte lukainkak Elizondokoak ere jarri du aldizkari honetan iragarkirik. Beste zenbait ere ageri da: Kide, Alonso...

Oraintxe 20 urte egin dituen Euskalerria irratan iragarki kopurua asko aldatu da lehengo urteetatik oraina. Iragarkien bila ibiltzen diren langileek lan honetan ikasi ahala eta irratia ezagutarazi ahala bezero iragartzaile gehiago da. Zenbait ia-ia hasieratik bezero izan ditu irratiak, urteetan hor entzun izan ditugu: Erice auto-eskola, beren leialtasunagatik Argia aldizkariak saritu zuena, hain zuzen, edo Planicop kopistegia bezalakoak. Beste aunitzek noizbehinka egiten du publizitatea, salmentarako egokienak zaizkien data edo egoera berezietan. Iruñeko Udalak ere maiz egiten zuen, Gobernuak ere bai, batez ere euskaraz egiten zituzten ekitaldi edo euskara sustatzeko edo haurrak matrikulatzeko deialdietarako. Nori eskatu iragarkiak irratan jar zitzan? Beste komunikabideetan nork jartzen zuen begiratu zuten, erdarazkoetan ere jartzen ez zutenek publizitate beharrik ez zutelako izanen baitzen. Eta, irratiko komertzialak harrera ona izaten zuen, ezezkoa ez zen iragarkia euskaraz izan behar zuelako, arrazoia beste bat izaten zen publizitatean aski gastatu zutela edo nahiago zutela egunkarietan egin. Euskarazko komunikabidea zelako jartzen dutenak badira ordea, gutxi halere, eta gehienetan oso noizbehinka iragartzen dutenak, herriko festak hurbiltzean edo. Bakar batzuk badira, Alforja optikoa bezalakoak euskaraz delako jarri, baina publizitate horren emaitza, eragin ona, ikusi eta hortxe jarraitzen dutenak luze. Irratia lokala izatea, entzuleen kopurua, entzuleen leialtasuna eta gisa horretako argudioak azaltzen omen zituen komertzialak saltzaileek iragarkiak jar zitzaten eta ez euskara edota euskarazko irratia laguntzeko beharrezkoa zela beren iragarkia. Iragarkia jartzen dutenen artean 10etik bat inguru da euskalduna.

¹ CAMPION, A., El euskera y los notarios, EUSKAL-ESNALEA, 7.eta 8. zbki., 1911.

Iragarkiak ez dituzte bada, euskararen normalizazioan laguntzeagatik egiten euskaraz, bai ordea, bezero gehiagorengana iristeko. Eta euskaldunok zergatik joaten gara komertzio horietara edo zergatik erabiltzen ditugu zerbitzu horiek? Beste edozein hizkuntzatan entzuten duenak izaten dituen arrazoiaz gain, euskaraz hartzean hurbilagoa sentitzen dugulako, gureagoa nolabait, batzuetan horrelako leialtasun puntu bategatik ere bai, zerbait zor bagenie bezala, eskertzekorik badugulakoan.

Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak

Eskertu beharra bagenu bezala, oraindik orain hasi gara-eta kontsumitzaileok gure eskubidea aldarrikatzen. Zerbitzu eta kontsumoaren mundua erdaraz zela sinetsi samarra genuen, mundu hori euskaraz ere posible dela ezinezkoa iruditzen zitzaigun, ohituak gaude erdarara. 60ko hamarkadan etxean ez ezik, euskara irakaskuntzan ere behar genuela ohartu ginen, gero helduen euskalduntzea etorri zen. Aurreraxeago Administrazioak ere euskaraz egin behar duela garbi izan dugu. Euskaraz bizi nahi badugu, ordea, lan munduan euskara nahitaezkoa dugula badakigu. Urte gehiago ematen dugu lanean eskolan baino, beraz, lantokian euskaraz egiterik ez badugu nekez biziko gara euskaraz. Eta kontsumitu eta zerbitzuak erabili egunero eta guztiok egiten duguna da.

Nafarroan, Iruñerrian behinik behin, industrian lantegi bakarra da euskara plana abian ezarri duena eta urte pare bat besterik ez du horretan lehen urratsak ematen hasi dela. Arrasateko kooperatiba-taldekoa da lantegi hau eta esan bezala, oraintxe abiatu da, eta gaur, beste batzuegandik izanen dugu aurreratuago dagoen antzeko esperientziaren baten berri. Komertzio eta zerbitzuetako zenbait ekimen aipatuko ditut orain, bere txikian ere, Nafarroako beste batzuentzat eredarri izan daitezkeelako eta gaurko gaiarekin, kontsumoa eta hizkuntza eskubideekin, lotuago dagoelako.

Nafarroako Aurrezki Kutxak eta batez ere Iruñekoak, biak elkartu aurretik, zenbait iragarki egin izan zituztela euskaraz esan dut, euskara sustatzeko aipatu ez ditudan sariak ere eman izan zituzten Diputazioarekin edo Udalarekin batean. Hori horrela izanik ere, Nafarroakoak, Iruñekoak ez bezala, biak elkartu aitzineko urteetan ez zuen batere irudi euskaltzalerik. Bi Kutxak elkartzea euskaldunok kaltegarritzat jo genuen, Iruñeko Kutxak euskaraz egiten zuen gutxia besteak irentsiko zuela eta. Eta lehenengo urteetan aldaketa nabaritu zen, Iruñeko Aurrezki Kutxak euskaraz egiten zuen gutxi hura Nafarroako Kutxan deus ez izatera pasatu baitzen. Gaur, hala ere, bezeroaren komunikazio hizkuntza bermatzea du helburu Nafarroako Kutxak. Norberak, bizi den tokian bizi dela, hauta dezake entitatearekin harremanetan jartzeko hizkuntza, euskaraz, katalanez, gaztelaniaz ala elebitan, beti ere idatziaz ari garelarik. Jendeak oso ongi hartu du neurri hau eta ez dute kexarik izan, hortaz esperientzia ona dela diote. Publizitate orokorra ordea, euskal eremuan bai, % 80an, bi hizkuntzatan egiten dute eta bulegoetan ere euskaldunak jartzen saiatzen dira. Iruñerrian, ez da horrelakorik. Langileak kontratatzean euskara jakitea ez da ezinbestekoa, baina begiratzen dute. Hala ere, herritar askoren ustez, oraindik lehenengo irudia du euskarari dagokionez, euskarazko zerbitzua ez baitute aski ezagutarazi eta publizitate orokorrean ez baita euskararik ageri. Kontuan izan zer nolako garrantzia duen kutxa honek Nafarroan, bertako familia gehienek badute-eta loturaren bat berarekin.

Iruñerriko Mankomunitatea. Hiri garraioa, ura, zaborra eta ur zikinen sarea kudeatzen dituen elkarte publikoa da. Bere barnean, Euskararen Legeak ezartzen dituen hiru eremuetako herriak hartzen ditu. Euskararen erabilera arautzen duen ordenantza egina du, Euskararen Legea aintzat hartuta. Ordenantza honen helburua da zerbitzua jasotzen duten hiritar guztiek,

bizi diren tokian bizi direla, hizkuntza eskubide berak izan ditzaten eta eskubide horiek berma daitezten. Norbanakoak aukeratu dezake zein hizkuntzatan nahi dituen jaso idatzizko jakinarazpenak eta abarrak, gainerakoan elebitan jasoko ditu. Irudi korporatiboa, oharrak eta publizitate orokorra ere elebitan egiten du. Bezeroekin harreman zuzenean ari behar duten langileak, hiritarren laguntzarako bulegoan edo bisitagarriak diren instalazioetan euskaldunak izaten dira, erdiak bederen.

Barañain, populazioari dagokionez Nafarroako hirugarren udala, eremu mistoan, Iruñea ondoon kokatua. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak taxututako metodologia erabiliz, Bai Euskarari egitasmoa lantzen ari dira bertan. Egitasmo honen barnean merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu orokorren arloko hainbat entitate (albaitariak, aholkularitza zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak, klinikak, bidaia agentziak, inprimategiak...) ari dira euskararen erabilera bultzatzeko pausoak ematen. Poliki-poliki gero eta gehiago dira proiektu honetan parte hartzen ari direnak eta herriko paisai linguistikoa ez ezik, ahozko zein idatzizko komunikazioan nabari da. Aipagarria da oso Udalak egitasmoari ematen dion babesa, irudi aldetik eta diru aldetik, proiektua abiatu zenetik hainbat alderditako alkateak izanik ere (independientea, PSNkoa, Na Baikoa eta UPNkoa) guztiek proiektu honetan parte-hartzeko prestasuna izatea. Proiektu honen bultzatzaile eta kudeatzailea herriko IKAKo euskaltegia izan da.

Badakigu hiri eta herri handietan euskaldunek norekin eta non euskaraz ari ez dugula jakiten, euskara gehiago erabiliko genukeela non erabil dezakegun jakingo bagenu. Karrikiri euskara elkarteak, honen jakitun izanik, neurri polit bat hartu du, ahal den heinean, hau moldatu nahian. Orain 10 urte Iruñeko Alde Zaharreko establezimendu euskaldunen zerrenda egin zuen, betiere, horien jabeen oniritziarekin. Azken urteetan, urratsez urrats, Iruñeko eta Iruñerriko herri gehienetako zerrenda osatu dute, eta zerrenda hau hiritarrei helarazi diete. Bestalde, establezimendu horietan “Euskaraz nonahi, hemen ere bai” txartela leku ikusgarrian jarria dute, euskaldunok euskaraz aritzera gonbidatzeko.

Norbanakoen borondatez hasitakoa, orain norbanakoen oniritziz, baina, aterpe orokor baten azpian gauzatzen ari da, zenbaitetan, instituzioak ere parte hartuta. Lehen, “Euskaraz mintzatzen da” zioen txartela euskararen presentziaren isla bazen, orain ekimen hauei esker presentzia hori nabarmenagoa da.

Bilbon, 2008ko azaroaren 21ean
Sagrario Aleman